

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure helburua turismoa indartzea da zerbitzu bat eskainiz, gure herriko edo kanpoko herritar guztiei bideratuta. Bereziki, inguruan horrelakorik ez dagoenez, historian zentratuko gara, gure herriko historian.

Jendea gure museora erakartzeko hainbat jarduera egingo ditugu:

-Web orri bat sortuko dugu, gure museoaren berri emateko bai bertakoei eta baita turistei ere, gaur egun teknologiak gizartean duen garrantzia



baliatuz. Ildo beretik, hainbat sare sozialetan gure kontuak sortuko ditugu: twitter, facebook, instagram...

Idea egokia iruditzen zaigu hau, jende gaztea beti Internetera konektaturik dagoelako eta gure mezuak jasoko dituztelako.

-Herri ezberdinetan gure proiektua azalduko dugu, hainbat udaletxe eta eskoletan hitzaldiak emanez. Horrela, adineko jendea ere ohartuko da gure museoaz.



Gure museoan hainbat gida izango ditugu bezeroei eskaintzeko.